



Gaztelugatxeko San Juan

Saint-Jean de Gaztelugatx



Gaztelugatxeko San Juan edo Doniene Euskal Herriko itsas santutegirik garrantzitsuena da. Mendeetan zehar Bizkaiko biztanleen peregrinazio tokia izan da, gehien bat inguruko herriko arrantzaleena.

Idazle erromantikoek, XIX. mendean, soberania nazionalaren sinbolotzat hartu zuten, irlaren tontorretik egin zen borrokagaitik Bizkaiko independentziaren alde.

Basatia eta edertasunez betea dugu Matxitxakoko lurmuturreko mendebaldea, gure kostako nabarmenena, Akatz eta Gaztelugatxeko irlak bereiztuz bereziki. Azken hau, begi biko harrizko zubi baten bidez dago lurrera loturik. Penintsula gainean San Juan bateatzaileari, bere martirioan edo lepo mozketan, eskeinitako ermita bat dago. Ermitara heltzeko 231 harri maila igo behar dira, tradizioak dioenez antzina 365 izan ziren: “urtiek egunek dekosen beste eskillarak egon ziren”.

Saint-Jean-de-Gaztelugatx est le sanctuaire maritime le plus important du Pays basque. Durant des siècles il a été un des lieux de pèlerinage les plus importants, notamment pour les pêcheurs de la côte de Biscaye.

Au XIXe siècle, les écrivains romantiques le revendiquèrent comme un symbole de la souveraineté nationale, en rappelant la défense héroïque de l'indépendance de Biscaye depuis les hauteurs du rocher.

L'ouest du cap Matxitxako, le plus proéminent de notre côte est à la fois abrupte et magnifique avec notamment les îlots Akatz et Gaztelugatx. Ce dernier est uni à la terre par un pont de pierre à deux yeux ; c'est en fait une péninsule sur laquelle est construite l'ermitage dédié au martyr ou égorgement de Saint Jean Baptiste. Pour y parvenir il faut monter 231 marches, même la tradition assure que autrefois y avait autant de marches que de jours de l'année, c'est à dire 365.



San Juan Lepamoztuari kultura


Eleiza katolikoak San Juanen jaiotza ekainaren 24ean ospatzen du eta bere martirioa abuztuaren 29an. Juan Bateatzailea Herodesen aginduz dekapitatu zuten, eta bere burua, bandeja batetan jarri ondoren, Herodiadesen alabari eman zioten. Kontakizun santu batek dioenez, Herodesek Bateatzailearen berpiztuerari bildur zion, burua eta gorpua batera lurperatuak baldin baziren, horregatik lurperatu zuen gorpua Makeronte-ko gotorlekuan eta burua Jerusalem-eko errege jauregiaren harresien azpian.

Erdi Aroko kronika miraritsuen arabera, burua, gorabehera askoren ondoren Akitaniaraino heldu zen. Bateatzailearen buruaren aurkezpena 1010. urtean egin zen Saint Jean d'Angély-n herrian, La Rochelle-tik kilometro batzuetara. Urte horretatik aurrera Bateatzailearen buruari kultura zabaltzen joan zen. Nafarroako erreinuan Santxo Handia erregeak, 1025. urtean, San Juan de la Peña monastegia sortu zuen Pirinioetan, Jaka inguruko ermitainu gune zahar baten gainean.

Le culte de Saint Jean Décapité

L'église catholique célèbre la naissance de Saint Jean le 24 juin, coïncident avec le solstice d'été, et son martyre le 29 août. Jean-Baptiste fut décapité sur l'ordre d'Hérode et sa tête fut portée sur un plateau à la fille d'Hérodiade. Une légende pieuse raconte qu'Hérode avait peur que le Baptiste ressuscite si on enterrait ensemble sa tête et son corps ; il ordonna alors d'enterrer le corps dans la forteresse de Maqueronte et sa tête à Jérusalem sous le mur d'enceinte du palais royal.

Les miraculeuses chroniques médiévales supposent qu'après de nombreuses vicissitudes, la tête parvint en Aquitaine. La présentation de la tête de Saint Jean Baptiste eu lieu en 1010 dans la commune de Saint-Jean-d'Angély à quelques kilomètres de La Rochelle. Le culte de la tête de Saint Jean Baptiste commença à se diffuser à partir de cette date. En Navarre le roi Sanche le Majeur créa en 1025 le monastère de San Juan de la Peña sur un antique foyer d'ermites.





Fundazioa

Hogeitazortzi urte beranduago, 1053. urtean, Bizkaiko jaunak Pirinotako monastegi famatuari tenplu hau eskeini zion. Tenplua jatorrizko dokumentuan *Sancti Iohannis de Castiello* izendapenarekin agertzen da, *“in territorio de Bakio eta alia parte de Bermeio”* kokatuta. Ondorengo dokumentuetan, premonstratense ordenari eskeintzen zaionean, *Sanctus Iohannes de Penna* deitzen zaio. Mendeetan zehar *San Juan de la Peña*, izenarekin jarraitu du edo antzekoekin: *Archivo Segreto Vaticano*-an, *Sancti Iohannis Baptiste de la Pennya* izenarekin aurkitu dugu XV. mendean. *San Juan de Gaztelugach* eta *San Juan de Gaztelugache* izenak dokumentuetan ez dira agertzen XVIII. mende arte. *Doniene* beste izendapen herrikoia da, ziurrenez *Done Iohannes* (“San Juan”) arkaiko baten kontrakzioa izango da.

Tenpluaren imajina agurgarriena San Juanen burua da, bandeja baten gainean jarrita. Irudi hau beti egon da ohorezko lekuan, erretaula nagusiarren erdian, eta orain absidearen jarritako itsasontzi baten brankaganean.



San Juan de la Peña (Huesca)

La fondation

Vingt-huit ans plus tard, en 1053, les seigneurs de Biscaye donnèrent ce temple au célèbre monastère pyrénéen. Dans le document original, il est cité sous le nom de Sancti Iohannis de Castiello localisé “in territorio de Bakio et alia parte de Bermeio”. Dans les documents postérieurs, lorsqu’il est donné à l’ordre des prémontrés, il est appelé Sanctus Iohannes de Penna. Il a conservé au fil des siècles ce nom de San Juan de la Peña ou d’autres noms similaires comme Sancti Iohannis Baptiste de la Pennya, que j’ai trouvé dans un document du XVe siècle de l’Archivo Segreto Vaticano. Les noms de San Juan de Gaztelugach et San Juan de Gaztelugache n’apparaissent dans la documentation qu’au XVIIIe siècle. Un autre nom populaire donné au sanctuaire, Doniene, est vraisemblablement la contraction d’un archaïsme Done Iohannes, qui signifie “Saint Jean”.

L’image la plus vénérée du temple est la tête de Saint Jean Baptiste déposée sur un plateau. Cette image a toujours été placée dans un lieu privilégié ; elle présidait le retable principal et est à présent placée comme figure de proue d’une barque de pêche présentée dans l’abside, sur l’autel.





Historia

“Monastegi” edo Erdi Aroko eleiza izatetik komentuko premonstratense bat izatera pasatu zen XII. mendean. Fraileek 1330. urtean komentua utzi eta dokumentazio guztia, santutegiaren erlikiak eta bitxiak Salamancara eraman zituzten eta galdu egin ziren.

Inioz ez da izan tenplarioren eleiza edo gomendioa. Baina, nire ustez, Tenplaren Ordenarekin zerikusi euki ahal du, bere kideen sarraskien ostean (1307-1314) tenplarioren altxorra eta La Rochelle-ko flota desagertu eta gero.

1334.ean Alfonso XI.a errege gaztelarrak Bizkaiko Jaureria Juan Nuñez de Lara jaunari kentzen saiatu zen. Jaunak Gaztelugatxeko haitzan egin zuen defentsa indarra, bertan inguratuta egonik ekaina eta uztailean zehar. Azkenik, errege gaztelarrak, aurkakoak garaitu ezin zituela konturatuz, armistizio bat sinatu eta bere tropak erretiratu zituen.

1596.ean, Bermeo eta Izaro atakatu zuen flota franko-ingeleseko soldadu batzuk San Juanera igo ziren. Hauek bitxiak lapurtu, bateatzailearen imajina bota eta ermitainua haitzetatik behera jaurtiki zuten, itsasoraino zatika eroriz. Ondorengo atake piratak ere, 1782.ekoa adibidez, botin urria eskuratu zuten.

XIX. mendean egoera tamalgarria zen, 1808an botatzen saiatu zirelarik. Dena den, azkenik ez zuten 1886. urteraino behera bota, antzinako eraikina apurtuz eta gaur egungo eleiza eraikiz, balore artistiko eta historiko gutxikoa.

Histoire

De “monastère” ou église médiévale est devenu couvent prémontré au XIIe siècle. Les frères l’abandonnèrent vers 1330 et emportèrent à Salamanque tous les documents, les reliques et les bijoux du sanctuaire dont rien n’est actuellement conservé.

Il n’a jamais été un temple ni une commanderie templière, mais je pense qu’il a eu des rapports directs avec l’Ordre des Templiers après la féroce extermination de ses membres (1307-1314) et la disparition du trésor et de la flotte templière basée à La Rochelle.

En 1334 le roi castillan Alphonse XI tenta d’usurper la Seigneurie de Biscaye à Juan Nuñez de Lara qui se souleva et constitua son fort sur le rocher de Gaztelugatx. Le roi castillan en fit le siège en juin et juillet. Devant l’impossibilité de soumettre les rebelles, il signa un armistice avec eux et retira finalement ses troupes.

En 1596 certains soldats de la flotte franco-anglaise qui attaquèrent la ville de Bermeo et l’île d’Izaro montèrent à Saint-Jean, volèrent les joyaux, renversèrent l’image de Saint Jean Baptiste et précipitèrent l’ermite sur les rochers, où il s’écrasa. D’autres attaques pirates eurent lieu par la suite, comme celui de 1782, mais toutes conquièrent un maigre butin.

Au XIXe siècle le monastère se trouvait dans un tel état pitoyable que l’on tenta de le démolir en 1808. Ceci ne fut fait qu’en 1886, année pendant laquelle on détruisit l’ancien bâtiment et on construisit l’actuelle église dont la valeur artistique et historique est limitée.



1917



Erromeriak

Udaro, milaka pertsona hurbiltzen dira San Juanera eskualde guztietako herrietatik, giro lasaitu eta alai batean behar diren errituak betetzeko. Ermitara heldu eta gero, ohitura da kanpaia jotzea. Ondorioz, kanpai sokaren azpian egun guztian zehar etengabe jotzen diharduten peregrino multzo izugarriak bilduz. Erromesak meza entzun eta gero, herrira itzuli baino lehen, Do-niene eskapularioak eta betiko erroskilak erosten dituzte.

Ekainak 24an egiten den erromeri famatuenera joaten diren gehienak bermeotarrak izaten dira, barrukaldeko herrietatik ere hainbat etorri arren. Goiz goizetik hasi eta milaka pertsona pasatzen dira ordurik ordura ematen diren mezetatik, lehena goizaldeko sei t'erdietan dutela. Ohitura izan da Olbizarretan (Urizarretan) eguerdikoa jan eta Bakiora jeitea. Arratsalde erdian Bermeora itzultzen da, Arenen geldiune bat eginez. Amaiera Bermeoko herrian ospatzen da jaigiroan, berandu arte.

Uztailaren 31an ere beste erromeria bat egoten da. Oraingo honetan Arrietatik ateratzen da goizaldean Ama Birjinaren irudi bat prozesioan eramanez. Oinez Sollubeko bizkarretik ibili ondoren, Mañuko Karmengo Birginaren eleizan eta San Pelaioko eleizan geldialdia egiten dute, eta hemendik San Juanera jeitsi.

Abuztuaren 29an bakiotarrek Eneperiko jaiak ospatzen dute, talde handitan joanez santutegira. Egun honetan ere Bermeoko Udaletxeak tenpluari bisita egin eta azken urtean jasotako berrien Akta egiten du, irlaren jabetza baieztatuz.



2007.08.29

Pèlerinages

Tous les étés les habitants des villages de la région se réunissent en pèlerinage (romería) jusqu'à le sanctuaire. Des milliers de personnes se retrouvent à cette occasion dans une ambiance de fête détendue et reprennent les rites traditionnels. La coutume veut qu'on fasse sonner la cloche dès qu'on arrive à l'église ; des files interminables de pèlerins se forment dans les escaliers et la font sonner pendant toute la journée de fête. Les pèlerins assistent à la messe et beaucoup d'entre eux avant de quitter l'église achètent des scapulaires de Saint Jean et les traditionnels beignets.

Le pèlerinage le plus importante, celle du 24 juin, réunit principalement des habitants de Bermeo, mais on y retrouve également des pèlerins venues d'autres villages de l'intérieur. Depuis l'aube des milliers de personnes défilent sur le rocher où sont données des messes chaque heure à partir de six heures et demi. Les participants mangent traditionnellement à Urizarreta (aussi appelée Olbizarrak), descendent à Bakio et, en milieu d'après-midi, reviennent à Bermeo en faisant une halte à Arene ; ils continuent à faire la fête dans le village jusque tard dans la nuit.

Le 31 juillet une nouvelle procession se dirige vers Gaztelugatx. À cette occasion elle part de bon matin d'Arrieta et porte en procession une image de la Vierge et parcourt à pied l'arête du mont Sollube ; elle s'arrête dans l'église de la Vierge du Carmen de Mañu et dans l'église de Saint Pelayo, puis descend jusqu'à Saint Jean.

Le 29 août la fête d'Eneperi réunit les habitants de Bakio qui se rendent en masse au sanctuaire. C'est également la date choisie par la Mairie de Bermeo pour la visite annuelle au temple et pour lire la minute des nouveautés de l'année passée, renouvelant ainsi la souveraineté du rocher.

10

2005.06.24



Kanpai hotsak

Antzina kanpaiak beheko partean egon ziren, harrizko arku batetik dindilizka. XIX. mendean egin ziren obreekin, kanpaia orain dagoen lekuan jarri zen, ate nagusiaren gainean. Tradizioak eskatzen du kanpaia jotzea santutegira heltzen danean. Gizon-emakume zahar batzuk dinoie *Pater Nosterra* erreza-tzen dan artean jo behar dela kanpaia. Beste batzuk hamahiru bider jotzen dute, baina, gehienak, hiru biderrez bakarrik jotzen dute.

Meza ematen denean kanpaia ez da jo behar.

Sonnerie de cloches

Autrefois les cloches étaient jadis situées à ras du sol, suspendues à un arc de pierre. Avec les travaux de la fin du XIXe siècle, on situa la cloche au-dessus de la façade de l'église. La tradition veut que l'on fasse sonner la cloche dès qu'on arrive au sanctuaire. Certaines villageois m'indiquent que l'on récitait un Notre Père pendant que la cloche sonnait et que celle-ci sonnait sans cesse tant que la prière n'était pas terminée. D'autres font sonner treize fois la cloche et la plupart des pèlerins ne la font sonner que trois fois, surtout s'il y a beaucoup de monde.

On ne doit pas faire sonner la cloche pendant une messe.



San Juan Portale eta San Juanen oñotzak

Doniene eta Bermeoko herria lotzen duen zilbor heztea, antzinako kaltzada, harresi zaharraren portalean hasten da, *San Juan Portale*-an. Horren azpian, oraindik, oin itxurako zulo bat duen harri bat daukagu, San Juanek berak utzi zuen oinotza egindakoa herriko jendearen ustez. Santuak, Bermeoko portuan lurreratu ondoren, hiru pausu emanaz iritsi omen zen Gaztelugatxera, lau oin aztarna utziz: “*San Juanek leelau leelau imin zauen kaderie Morondon, arkupien. Gero imin zauen kaderie Arenen, itxurri zelan dauen Salomeneko beko partien, an leelengo kaderie. Bigarrena Martin Koixoneko mendijjen, an Landatxuen, Landako beko partien, da irugarrena San Juanen. Zelako oñek okin sauen San Juanek!*”.

1980garren hamarkadan, Burgoko kaltzada galdu ondoren, oin aztarna bat jarri genuen egungo bidearen ondoan, gutxi gora behera Matxixako lurmuturra pasata, santutegia lehenengoz ikusten den tokian. San Juan Portalekoa berria jarri zan eta Burgokoa, santutegian bertan ipini zan eta holan, San Juanen hiru pauso eta lau oinotzak mantendu egin dira.



La Porte et les empreintes de Saint Jean

Le cordon ombilical qui unit le sanctuaire à Bermeo, l'ancienne chaussée, commence à l'ancienne porte des murailles, populairement appelée San Juan Portale. Sous la Porte de Saint Jean se trouve encore de nos jours une pierre dans laquelle est creusée une cavité en forme de pied qui représente, selon les légendes locales, l'empreinte ou “ trace ” laissée par Saint Jean, San Juanen oñotza. Après avoir débarqué dans le port de Bermeo, le saint est allé jusqu'au le sommet du rochet en trois grandes enjambées ; la première depuis la porte des murailles jusqu'au quartier d'Arene, la deuxième jusqu'au mont Burgó et la troisième jusqu'au rocher de Gaztelugatx.

Dans les années 1980, après avoir perdu la trace du chemin du Burgo, nous avons placé une empreinte à côté de la route actuelle, juste au détour du cap Matxixako, à l'endroit exact où le sanctuaire apparaît pour la première fois. La dalle de la première enjambée a été rénovée et la dalle de Burgo où est gravé le nom de Saint Jean a été placée sur le sanctuaire même au fin de l'escalier d'accès. Nous avons ainsi conservé la succession des trois enjambées et des quatre empreintes du saint.





Arrantzaren aldeko erritualak

Uda hasieran edo udazkenean, atunaren kosteraren hasiera eta amaierarekin batera, itsasontzietako neskatilak eta arrantzaleen senideen taldeak San Juanera joaten dira arrantza on baten eskatzeko.

Bermeoko itsasontzi berrien bedeinkazio edo “bautisue” ere Gaztelugatx aurrean egiten da. Fraile edo abadeak untzia bedeinkatzeko bazter guztiak zeharkatzen ditu, ur bedeinkatua isuriz eta beragaz gurutzeak eginez toki guztietan. Ospakizun erlijiosoa bukatzean, itsasontziak hiru zirkulo ematen ditu itsasoan eta ondoren, gaur egun nahiko isilean, errito magikoa hau egiten da: sartagin baten gainean San Juan besperan batutako “San Juan kargillie” ipintzen da, sua ematen zaio, eta sartagina, belar sorta eta guzti, kareletik itsasora botatzen da. Batzuk, jarraian, txanpoiak itsasora bota egiten dituzte itsasontziak sorte ona euki dezan.

Rituels propitiatoires de la pêche

Au début de l'été ou en automne, à l'occasion du début et de la fin de la campagne de pêche du thon, on peut souvent voir des groupes de femmes ou de parents des pêcheurs se rendre à Saint Jean pour demander que la pêche soit bonne.

La bénédiction ou “baptême” des nouvelles embarcations de Bermeo a aussi lieu en face du rocher. Le frère ou le prêtre qui bénit l'embarcation bénit toutes ses parties avec de l'eau bénite et des signes de croix. Une fois la cérémonie religieuse terminée, l'embarcation fait trois cercles sur la mer et réalise le rituel magique suivant, aujourd'hui exécuté discrètement : on place sur une poêle un “rameau de Saint Jean “ (San Juan kargillie) ramassé la nuit de la Saint Jean, on l'embrase et on jette la poêle et le rameau en feu par-dessus bord dans la mer. Puis quelques participants jettent quelques monnaies dans la mer pour assurer une bonne pêche au bateau.



Herritar medikuntza

Santutegira arima garbitzeko joateaz aparte, gorputzaren gaitzak sendatzeko ere joaten zen jendea. Seme alaba bako emakumeak santutegiko Santa Ana-rengana joaten ziren umeen erropa edo gauza bategaz. Bere bitartez lortu-tako umeak “benturara” bataiatzen ziren bertan. Amets geixotasunak sufritzen zituzten umeez (sonambulismoa, amets gaiztoak, gau beldurrak) hiru barikutan jarraian eramaten zituzten San Juanera, errosario bat erreztatu eta limosna bat eskeiniz.

Buruko min ugariak dituztenak, kanpaia hiru sortan jotzen zuten, azpian kokaturik, eskurago zegoenean. Buruko mina ez eukiteko, gaur egun arte heldu den ohitura, kanpai jotzea izen da, kredo bat erreztatzen den artean. Tartar egiten zutenek San Juani, ukubilan gorde zezaketen mone-dak eskeintzen zioten. Kailuak zituztenek, berri-z, euren oinak ermitarako bidean zehar dauden San Juanen “oinen” aztarnetan sartzen zituzten.

Era guztietako promesak eta eskakizunak ere egiten dira, pertsonalak, familiarrak, ikasketenak, itsasontzietarako, enpresentzako, negozioak, gi-zartearen aldekoak, eta abar. Aipamen berezia me-rezi dute “arimier” buruzko sineskerak, hemen as-ku ahal dira eta hemetik zerura igotzen direlako.



Médecine populaire

Le sanctuaire a aussi été le lieu de processions pour demander la purification des âmes et la guérison des corps. Les femmes qui ne pouvaient pas avoir d'enfants portaient un vêtement ou un objet d'enfant à l'image de Saint Anne et les baptisaient ensuite "à la venture". On amenait les enfants qui souffraient de troubles du sommeil (sommambulisme, cauchemars, terreurs nocturnes) trois vendredis consécutifs à San Juan où ils récitaient un rosaire et déposaient une offrande.

Ceux qui souffraient de fréquents maux de tête faisaient sonner la cloche par trois fois et se plaçaient au-dessous, lorsque celle-ci était plus accessible. Une coutume toujours en vigueur actuellement, pour se protéger des maux de tête, il est recommandé de faire sonner la cloche sans arrêt pendant qu'on récite un Credo. Les bégues offraient à San Juan les monnaies qu'ils pouvaient contenir dans leur main. Ceux qui souffraient de durillons aux pieds introduisaient leurs pieds dans les "empreintes" du Saint qui jalonnaient le chemin de l'ermite.

Certains font la promesse de se rendre au sanctuaire s'ils obtiennent ce qu'ils demandent et présentent des vœux de tout type, personnels, familiaux, pour les études, pour guérir, pour les bateaux, les entreprises, les affaires, etc. Le sanctuaire a aussi été associé aux "âmes en peine", arimiek, qui d'ici on peut se libérer et monter au ciel.



Gaztelugatxeko Babespeko Biotopoa

Kostaldearen eremu honek paisaia-multzo bikaina osotzen du. Azpimarratzeko dira itsasoaren hondoak, alga handiarekin (*Laminaria spp.*), *Gelidium sesquipedale*, labarretako landareri bereziak (*Armeria euskariensis* eta *Olea europaea var. sylvestris*), lanpernak, arrain mota asko eta itsasoko hegaztiak (kormorana, hanka horidun kaioa, ohiko painoa eta abar). Gaztelugatx aldeko itsasoak, lurrak, landareria eta fauna konserbatzeko, Babestutako Biotopo deklaratu zen (EHAA, 229/1998 Dekretoa). Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio Biotopoen kudeaketa eramatea.

Biotope Protégé de Gaztelugatx

Cette partie de la côte compose un paysage réellement impressionnant. Il contient de magnifiques fonds marins, avec de grandes algues (*Laminaria spp.*), *Gelidium sesquipedale*, une végétation de falaise intéressante (*Armeria euskariensis* et *Olea europaea var. sylvestris*), des pousse-pieds, de nombreuses espèces de poissons et d'oiseaux marin (cormoran, goéland à pieds jaunes, pétrel tempête, etc.). Pour conserver et protéger le paysage, la flore et la faune de la zone de Gaztelugatx, il a été déclaré Biotope Protégé (BOPV - Journal officiel du Pays basque, Décret 229/1998). La gestion du Biotope est de la compétence de la Députation Forale de Biscaye.

Santutegiaren ondamena 1978.ean

Gaztelugatxeko eleizak izan duen azken gertakizun penagarriena 1978.eko urriaren 10ean eginiko erretea izan da. Sakrilegioaren egileek santuaren burua haitzetatik behera bota zuten, egun batzuk geroago bertan aurkituaz. Jarraian talde handi batek, gehienak bermeotarrak, "Doniene Berreraikiaren Aldeko Komisioa = Comisión Pro Reconstrucción de San Juan" taldea sortu zuten. Bi urte baino gutxiagoko epean, santutegia berregitea lortu zuten, 1980. urteko ekainaren 24an inauguratuz.

Bere misioa bete ondoren, komisioko hiru kideak eta "Doniene Santutegiko Zaintzaile Taldea = Comisión de Mantenimiento del Santuario de San Juan de Gaztelugatxe" sortu zen. Ordutik, eleiza eta bere kultureko mantenimendu lanak egiteaz gainera, inguruko berritze eta hobetzekoak ere egin dituzte. Komisioko bultzatzailetako bat D. Ramón Mendizabal abadea izan zen, 1993.eko abenduaren 30an hil zena. Urtero eta egun horretan, Gaztelugatxeko San Juaneko lagunak eta kolaboratzaile hildako guztien aldeko meza bat ospatzen da.



1990




2006

Destruction du sanctuaire en 1978

La dernière péripétie subie par l'église de Gaztelugatx est l'incendie provoqué du 10 octobre 1978. Les auteurs du sacrilège jetèrent la vénéré tête du saint sur les rochers, où on la retrouva quelques jours plus tard. Un grand nombre de personnes, principalement de Bermeo, constituèrent aussitôt la "Commission pour la reconstruction de Saint Jean" qui, en moins de deux ans, reconstruisit le sanctuaire inauguré le 24 juin 1980.

Cette commission fut dissoute une fois sa mission terminée. On mis alors en marche la "Commission d'entretien du sanctuaire de Saint Jean de Gaztelugatx = Doniene Santutegiko Zaintzaile Taldea" qui se charge depuis toutes ces années de la maintenance de l'église et de son culte, ainsi que de réaliser des travaux d'amélioration et de nettoyage de l'environnement. L'un des promoteurs de cette Commission était le prêtre Ramón Mendizabal, décédé le 30 décembre 1993, date à laquelle est célébrée une messe commémorative pour tous les amis et collaborateurs décédés de Saint Jean de Gaztelugatx.



1980.06.24

© Idazlea / Auteur: **Anton Erkoreka**

© Doniene Santutegiko Zaintzaile Taldea
Bermeo, 2008

I.S.B.N.: 978-84-920885-2-2
Legezko gordailua: NA-2507-2008
Maketazioa: Kiñuka
Inprimatzailea: Gráficas Lizarra

ELIZKIZUNAK / *CULTE ET HORAIRE DES MESSES*

Ekainak 24 juin (Saint Jean)

6'30, 7'30, 8'30, 9'30, 10'30, 11'30, 12'30, 13'30 et à 18h

Uztailak 31 juillet (Saint Ignace)

11 et 12h

Abuztuak 29 août (Eneperi)

11, 12 et 13h

Abenduak 30 décembre

17h

